



PARQUE TECNOLÓGICO-TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A.

Gobernu Korporatiboaren Txostena 2023

2024ko martxoak 21



1. JABETZAREN EGITURA

1.1.- Sozietatearen kapitala

2023ko abenduaren 31n, hauxe da Sozietatearen kapitala:

Azken aldaketa-data	Kapital soziala (€)	Akzio-kopurua	Boto-eskubideen kopurua
2023-10-5	143.866.700	1.438.667	1.438.667

Akzioak izendunak dira –bakoitza ehun euro nominalekoa eta guztiak mota berekoak– eta erabat harpidetuta eta ordainduta daude.

1.2.- Ekitaldiaren itxiera-datan, hauek dira partaidetzen titular zuzenak:

Akziodunaren izena edo izen soziala	Boto-eskubide zuzenen kopurua	Boto-eskubide guztien araberako %
SPRI- Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia	1.024.589	% 71,22
Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia (BFA/DFB)	265.855	% 18,48
Azpiegiturak, S.A.U.	119.000	% 8,27
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)	26.361	% 1,83
Zamudioko Udala / Ayuntamiento de Zamudio	2.862	% 0,20

1.3.- Ekitaldian zehar akzio-egituran egondako mugimendu nagusiak hauek izan dira:

Ekitaldian ez da mugimendurik egon akzio-egituran.

1.4.- Administrazio Kontseiluko kideek ez dute Sozietatearen akziorik.

1.5.- Sozietate-harremani dagokienez, BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA (BFA/DFB) da AZPIEGITURAK, S.A.U.-ren % 100aren jabe.

1.6.- Sozietateari ez zaio jakinarazi harengan eragina izan dezakeen hitzarmen parasozialik, eta ez da ezagutzen bere akziodunen arteko ekintza itundurik.

1.7.- Sozietateak ez du akziorik autozorroan.

1.8.- Estatutuetan ez dago mugarik boto-eskubideak gauzatzeari dagokionez.

1.9.- Estatutu Sozialen 2. artikuluan ondoko murrizketak ezartzen dira kapital sozialaren partaidetzen eskualdatzeri dagokienez:

"...

Sozietatetik akzioak besterendu nahi dituen erakundeak edo pertsonak idatziz eman beharko dio horren berri Administrazio Kontseiluari, eta organo horrek, hilabete bateko epearen barruan, gainerako akziodunei jakinaraziko die. Akziodunek bi hileko epea izango dute erosteko aukera izan eta erosketa gauzatzeko. Akzioak erosi gura dituztenak bat baino gehiago badira, horien artean banatuko dira, bakoitzaren partaidetzaren prorratan.

Erakunde edo pertsona bazkideetako inork ez badu salmentan dauden akzioak eskuratzeko interesik agertzen, Sozietateak berak eskuratu ahal izango ditu hogeita hamar eguneko epearen barruan, Legeak ezartzen dituen muga eta ondoreekin.

Behin azkeneko epe hori igaro ondoren, erakunde edo pertsona bazkideak bere akzioak egoki irizten dion bezala eskualdatzeko askatasuna izango du; bi hilabeteko epea izango du horretarako.

Aurrez ezarritako lehentasunez erosteko eskubideaz baliatzeko, salmenta-prezioa – eskualdatuko diren akzioen balio errealarri dagokion prezioa izango dute, gutxienez-peritutz bidez ezarriko da adostasunik ezean, eta aldeek adostuta izendatuko da titularitatea eta, halakorik ezean, eskudun Epaitegiak egingo du izendapen hori.

Baliogabetzat hartuko dira Sozietatetik kanpoko pertsonen egiten zaizkien akzio-eskualdaketak, baldin eta estatutuetan ezarritakora doitzen ez badira”.

2. SOZIETATEAREN ADMINISTRAZIO-EGITURA

2.1.- Estatutuetan, kontseilari-kopuru hau aurreikusten da:

Estatutu Sozialen 8. artikuluan ondokoa ezartzen da: "Gehienez ere hamar kidez osatuta egongo da Administrazio Kontseilua; kide horiek bazkideen ordezkariak izango dira, eta Batzar Nagusiak izendatuko ditu, akziodunek proposatuta...".

2023ko abenduaren 31n, zehaztutako kontseilari-kopurua hamarrekoa da (10).

2.2.- 2023ko abenduaren 31n, Administrazio Kontseiluko kideak ondorengoak dira:

Kontseilariaren izena edo izen soziala	Kontseiluan duen kargua
Estibaliz Hernaez Laviña and.	Presidentea
Imanol Pradales Gil jn.	1. presidenteordea
Aitor Urzelai Inza jn.	2. presidenteordea
Mikel Amundarain Leibar jn.	Kidea
Aitor Cobanera Rodríguez jn.	Kidea
Leyre Madariaga Gangoiti and.	Kidea
Ainara Basurko Urkiri and.	Kidea
Inmaculada Arostegui and.	Kidea
Lander Aretxabaleta Jauregui jn.	Kidea
Izaskun Artetxe García and.	Kidea eta idazkaria

Hautaketa-prozedura kasu guztietan: azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuan ezarritakoa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.

2.3.- 2020ko ekitaldian, kontseilari hauek utzi dute Administrazio Kontseiluko kargua:

Izena	Kontseilariaren egoera, kargua utzi duen unean	Bajako data
Estíbaliz Hernáez Laviña and.	Presidentea	23.06.15
Izaskun Artetxe García and.	Kidea eta idazkaria	23.06.15
Igotz López Torre jn.	Kidea	23.10.5

2.4.- 2020ko ekitaldian, Administrazio Kontseiluko kide hauek izendatu dira:

Izena	Kontseilariaren egoera	Altako data
Estíbaliz Hernáez Laviña and.	Presidentea	23.06.15
Izaskun Artetxe García and.	Kidea eta idazkaria	23.06.15
Lander Aretxabaleta jn.	Kidea	23.10.5

2.5.- Kontseilari berriek ondoko dokumentazioa dute eskura euren prestakuntza eta orientabiderako:

- a.** Irailaren 24ko 288/1985 Dekretua, Parque Tecnológico-Tecnologi Elkartegia S.A. sozietatearen funtzionamendu-arauei buruzkoa.
- b.** Parque Tecnológico-Tecnologi Elkartegia, S.A.-ren Estatutu Sozialak.
- c.** Kontseiluaren Estatutua.
- d.** Parque Tecnológico-Tecnologi Elkartegia, S.A.-ren kode etikoa.
- e.** Parque Tecnológico-Tecnologi Elkartegia, S.A.-ren organigrama.
- f.** Gobernu Korporatiboaren Txostena.
- g.** Parque Tecnológico-Tecnologi Elkartegia, S.A.-ren aurrekontuak
- h.** Parque Tecnológico-Tecnologi Elkartegia, S.A.-ren Administrazio Kontseiluaren aktak, azkeneko hamabi hilabetekoak.

2.6.- Hauek dira kontseilari exekutiboak:

Kontseilariaren izena edo izendapena	Duen kargua
Estibaliz Hernáez Laviña and.	Presidentea
Aitor Urzelai Inza jn.	2. presidenteordea

Kontseilari exekutiboen kopurua guztira	2
Kontseiluaren % guztira	% 20,00

2.7.- Hauek dira egungo kanpo-kontseilari dominikalak:

Kontseilariaren izena edo izendapena	Ordezkatzen duen edo izendatzeko proposatu duen akziodun adierazgarriaren izena edo izendapena
Estibaliz Hernáez Laviña and.	SPRI

Aitor Urzelai Inza jn.	SPRI
Mikel Amundarain Leibar jn.	SPRI
Aitor Cobanera Rodríguez jn.	SPRI
Leyre Madariaga Gangoiti and.	SPRI
Imanol Pradales Gil jn.	BFA/DFB
Izaskun Artetxe and.	BFA/DFB
Ainara Basurko Urkiri and.	BFA/DFB
Lander Aretxabaleta Jauregui jn.	Zamudioko Udala
Inmaculada Arostegui and.	UPV/EHU

Kontseilari dominikalen kopurua guztira	10
Kontseiluaren % guztira	% 100

Urtean zehar ez da aldaketarik egon kontseilarien tipologiari dagokionez.

2.8.- Kargua utzi duten kontseilari guztiek agintaldia bukatu baino lehen utzi dute kargua.

2.9.- Administrazio Kontseiluak ez du kontseilari delegaturik izendatu.

2.10.- Ez da Administrazio Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrik ezarri.

2.11.- Kontseiluko kide batzuk administrari edo zuzendaritzako karguak dituzte Spri Taldea osatzen duten bestelako sozietateetan.

Halere, 2023ko ekitaldian, Sozietateko administrariak ez dute Sozietatearekin ezta Taldeko sozietateekin ere ohiko salerosketez besteko edo merkatuaren baldintzak betetzen ez dituen eragiketarik egin.

Era berean, 2022ko ekitaldiaren itxieran, ez Parque Tecnológico –Teknologi Elkartegia, S.A.-ko Administrazio Kontseiluko kideek eta ezta eurekin lotutako pertsonen ere –Kapital Sozietateei buruzko Legean zehaztutakoaren arabera– ez dute inolako harremanik izan jardura mota dela-eta interes-gatazka diren –bai eurentzat bai Sozietatearentzat– beste sozietate batzuekin. Bestalde, 229. artikuluan adierazitako zentzuan, ez zaienez jakinarazpenik egin ez Administrazio Kontseiluari ezta gainontzeko administrariei ere, ez da banakatzerik egingo.

2.12.- Sozietateak ez du araurik ezarri kontseilariak parte hartu dezaketen kontseilu kopuruari dagokionez.

2.13.- Administrazio Kontseiluak bere gain hartzen dituen erantzukizunak enpresari dagokionez, ondokoak dira batez ere:

- Inbertsio- eta finantzaketa-politika.
- Administrazio Kontseiluaren Estatutua.
- Urteko kudeaketa-plana, bai eta bere egikaritzeari buruzko ebaluazio partzialak ere.
- Goi-zuzendaritzako kideentzako pizgarriak eta euren jardueraren ebaluazioa.
- Enpresen onarpena.
- Sozietatearen eta bere talde kontsolidatuaren urteko kontuen formulazioa.
- Eragiketa komertzialak, salmentak batez ere.
- Garrantzi handiagoko obrak eta zerbitzuak kontratatzea.

2.14.- Sozietateak Kontseiluaren Estatutua du, Administrazio Kontseiluko kide guztiek berretsi eta sinatu dutena. Ondokoekin loturiko gaiak jasotzen ditu:

- Kontseiluaren osaketa.
- Kontseiluaren egitura.
- Kontseiluaren Batzordeak.
- Kontseiluaren funtzioak.
- Kontseiluaren funtzionamendua.
- Kontseilariak izendatzea eta euren kargua Kontseiluan kontseilari
- Kontseilariaren betebeharrak (Kode Deontologikoa)/Interes-gatazka.
- Kontseilariaren eskubideak eta eskumenak.
- Gobernu Korporatiboa.

2.15.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legea indarrean sartu denez, hura botere esleitzailerik gisa aplikatu behar da.

2.16.- 2023an, ez zaie Administrazio Kontseiluko kideei ordainsaririk eman.

2.17.- Goi-zuzendaritzako kide bat ez da kontseilari exekutiboa.

2.18.- Ez dago berme- edo blindatze-klausularik Sozietatearen goi-zuzendaritzako kideen mesede, kontseilari exekutiboentzat ere ez.

2.19.- Batzar Nagusiak adosten du kontseilarien izendapena, berrautaketa eta kargua uztea, eta ez dago horretarako aurretiazko prozedura espezifikorik.

2.20.- Kontseilariak behartuta daude dimititzera kasu hauetan (Kontseiluaren Araudiaren 22. art.):

- *Izendatuak izan ziren epealdia igarotzen denean edo Batzar Nagusiak, legez eta estatutu bidez dituen eskumenak erabiliz, erabakitzen duenean.*
- *Legez aurreikusitako bateraezintasun- edo debeku-kasu bat betetzen denean.*
- *Kontseiluko kide diren aldetik dituzten betebeharrak urratu dituztenean.*
- *Kontseiluan jarraitzeak Sozietatearen interesak arriskuan jar ditzakeenean.*

2.21.- Ahalordeak pertsona bakar batean metatzearen arriskuak mugatzeko, ondoko neurria hartu da: 300.000 eurotik gora, ahalordeak mankomunatuak dira Itziar Epalza Urquiaga zuzendari nagusiaren, Estibaliz Hernáez Laviña presidentearen eta Aitor Urzelai Inza Bigarren Lehendakariordearen artean; funtsean, mailegu- edo kreditu-eragiketak izenpetu edo formalizatzeko; mota guztietako fidantza, abal, bahi, hipoteka, antikesi edo bermeak eskatu, eratu, onartu, aldatu, geroratu, ezeztatu edo baztertzeko, osorik edo zati batean; Sozietatearen jarduera ekonomia- eta finantza-jarduerarekin zerikusia duten kontratuak egin, sinatu, formalizatu, esleitu, aldatu, suntsiarazi, hutsaldu eta deuseztatzeak ("confirming", "factoring" eta antzekoak).

2.22.- Edozein motatako erabakiak hartzeko ez da legeak ezarritakoaz beste gehiengo sendorik eskatzen eta akordioak erdia gehi bat quorumaren arabera hartuko dira.

2.23. Kontseiluko Lehendakariak Estatutu Sozialetan eta Kontseiluaren Estatutuan ezarri zaizkion funtzioak, organo horren funtzionamenduari dagokionez, ondokoak dira:

- a.** Sozietatearen goi-zuzendaritza.
- b.** Kontseiluaren bileretarako deialdia egitea eta horien buru izatea, ebazteko eta eteteko ahalmenarekin. Deliberazioak zuzenduko ditu, hitza nork duen erabakiko du eta mintzaldien iraupena zehaztuko.
- c.** Kontseiluaren bileren gai-zerrenda finkatzea.
- d.** Kontseiluko kide guztiak bileretara bertara daitezen saiatzeari; horretarako, Araudi honetan xedatzen den moduan eta epeetan bidaliko dira deialdiak.
- e.** Kontseilariren bat Kontseilura bertaratzen ez denean horren zioak egiaztatzea, ez bertaratzea errepikatzen denean.
- f.** Kontseiluaren eta Batzarraren akordioak egikaritzea eta betearaztea.
- g.** Kontseiluaren funtzionamenduaren ebaluazioa gainbegiratzea, ebaluaziotik eratortzen diren hobetze-proposamenak martxan jartzea, hala dagokionean, edo hautemandako eraginkortasunik eza zuzentzea.

2.24.- Lehendakariak kalitateko botoa du.



2.25.- Estatutuak edo Kontseiluaren Estatutuak ez dute kontseilarien adinari buruzko mugarik jartzen.

2.26.- Ez dago prozesu formalik botoak Administrazio Kontseiluari eskuordetzeko, nahiz eta aktak idatziz egindako boto-eskuordetzeak soilik jaso.

2.27.- Administrazio Kontseiluak lau bilera egin ditu 2023ko ekitaldian. Guztietan egon da Presidentea.

2.28.- Orotara ekitaldian, kontseilariak 10tan ez dira agertu Administrazio Kontseiluaren bileretara, eta horietan denetan eskuordetu da botoa.

2.29.- Formulatuak izan daitezten, Kontseiluari aurkezten zaizkion urteko kontuak aldeztatik aurretik egin dira zuzendari nagusiaren gainbegiratzepan.

2.30.- Administrazio Kontseiluak ez du mekanismorik ezarri berak formulatutako urteko kontuak Batzar Nagusian aurkeztea galarazteko, ikuskaritza-txosteneko salbuespenak kontuan izanda.

2.31.- Kontseiluko idazkariak kontseilari izaera du.

2.32.- Kontseiluaren osoko bilkurak onartzen du Kontseiluko idazkariaren izendapena eta kargu-uztea.

2.33. Kontseiluko idazkariaren funtzioa da funtzionamendu-arauak egoki aplikatzen eta aktak jasotzeko zein sinatzeko prozedurak egoki garatzen direla bermatzea. Horrez gain, akta-liburuak eta akziodunen liburuak zaindu behar ditu eta akordioak izapidetu.

2.34.- Kontu-ikuskariaren independentzia bermatzeko, lehiaketa publikoaren mekanismoa erabiltzen du sozietateak; hartara, publikitate, objektibotasuna eta konkurrentzia bermatzen baitira.

2.35.- 2023ko ekitaldiko Urteko Kontuen auditoretza-txostenean ez da salbuespenik ageri.

2.36.- Egungo auditoretza-entresak, PKF ATTEST Servicios Empresariales, S.L.-k aurreko bigarren aldiz egin du Sozietatearen urteko kontuen auditoretza, gaur egun kontratatuak dituen hiru urteetan (2022, 2023 eta 2024). Sozietatea eratu zenetik (duela 37 urte) ikuskatzen ditu bere kontuak.

2.37.- Dagozkien funtzioak egiteko laguntza jasotze aldera, kontseilariak lege-aholkulariak, kontulariak, finantza-aholkulariak edo bestelako adituak kontrata ditzakete edo bileretara joan daitezten eska diezaiekete. Halako laguntzaile bat eskatzeko, beharrezkoa da argitu



nahi diren arazoak gutxieneko munta eta konplexutasun maila izatea, eta karguaren jardunean agertutakoak izatea.

Kontratatzeko erabakia Kontseiluko presidenteari jakinarazi beharko zaio eta betoa jar dakioket baldin eta ondokoa frogatzen bada:

- a. Ez da beharrezkoa agindutako funtzioak behar bezala gauzatzeko.
- b. Kostua ez da arrazoizkoa arazoak duen garrantzia ikusita.
- c. Sozietateko aditu eta teknikariek egoki eman dezaketela eskatutako laguntza teknikoa.

2.38.- Kontseilariak administrazio-organoen bilerak nahikoa denborarekin prestatzeko behar den informazioa izan dezaten, gutxienez hamar egun naturaleko aurrerapenarekin bidaliko da deialdia, baldin eta gutun bidez egiten bada, eta zazpi eguneko aurrerapenarekin, baldin eta posta elektronikoko bidez egiten bada, kontseilariak kasu bakoitzean adierazitako helbidera. Deialdi horretan, bileraren gai-zerrenda eta dagokion informazioa emango dira beti. Normalean, sozietatearen egoitzan egingo dira batzarrak, baina Presidentetzak zehazten duen beste leku batean ere egin ahal izango dira, baita bitarteko telematikoa erabilita ere, kontseilariak leku ezberdinetatik aldi berean parte hartuta, ikus-entzunezko edo telefono bidezko bitartekoekin konektatuta, baldin eta ziurtatzen bada parte hartzen duten kideak ezagut daitezkeela eta denbora errealeko interaktibitatea eta interkomunikazioa mantentzen direla eta, beraz, batzarraren batasuna.

2.39.-Administrazio Kontseiluko kideei etengabe informazioa emateko sistema garatu du enpresak. Hala, Administrazio Kontseiluaren bileren gai-zerrendaren barruan informazio ekonomikoa, finantzarioa eta jarduerari buruzkoa jasotzen da, eta horrez gain, zuzenean egoeraren berri izateko informazio garrantzitsua ematen da.

2.40.- Administrazio Kontseiluaren Araudiari gehitu zaio kontseilarietzako Kode Deontologikoa, kide guztiek bete beharreko irizpide etikoak eta jokaera-irizpideak jasotzen dituenak. Kode horretan hainbat irizpide ezartzen dira, besteak beste, etikoki onargarriak diren erabakiak hartzeko, kontseilarien artean izan daitezkeen interes-gatazketarako, gatazka horiek konpontzeko, etab. Era berean, ondoko kapituluetan egituratuta dago kodea:

- Jokaera-irizpideak
- Kontseilariaren betebeharrak orokorrak
- Isilpekotasun-betebeharra
- Gardentasunaren eta informazioaren betebeharra
- Interes-gatazka
- Sozietatearen izena erabiltzea
- Informazio ez-publikoa
- Lotutako pertsona

2.41.- Administrazio Kontseiluko kide batek ere ez dio jakinarazi Sozietateari prozesatu dutenik edo haren aurka ahozko epaiketa irekitzeko autoa eman denik, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 213. artikuluan adierazitako delituak direla-eta.



2.42.- Urtero inkesta baten bidez ebaluatzen da Administrazio Kontseilua eta galderak ondoko arloei buruzkoak dira, besteak beste: bileren datak, deialdiak, gai-zerrendako gaien buruzko informazioa, informazio-eskaerei emandako arreta, etab.

3. LOTUTAKO ERAGIKETAK

3.1.- Taldeko enpresak eta lotutakoak

Lotutako erakundeak direla ulertuko da bietako batek (edo multzo batek, elkarrekin adostuta jarduten badute) bestearen gainean, zuzenean edo zeharka edo bazkideen arteko itun edo akordioen ondorioz, kontrola daukanean edo haren erabaki finantzarioetan edo ustiapenekoetan eragin garrantzitsua daukanean edo eduki dezakeenean.

Lotutako erakundeekin egiten diren eragiketatzat hartuko dira taldeko enpresekin eta elkartuekin egiten direnak. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeekin egiten diren transakzioak barne hartzen dira, Sozietatearen izaera publikoaren eraginpean egon daitezkeelako.

2023ko eta 2022ko ekitaldietan Sozietatearekin transakzioak egin dituzten lotutako aldeak eta lotura horien izaera ondoren adierazten dira:

	Loturaren izaera
Gobierno Vasco y entidades relacionadas	Taldeko enpresa
SPRI- Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia	Zuzeneko sozietate menderatzailea
Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.	Taldeko enpresa
Parque Científico y Tecnológico de Guipúzcoa – Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, S.A.	Taldeko enpresa
Finantzen Euskal Institutua - Instituto Vasco de Finanzas	Lotutako enpresa
Azpiegiturak S.A.M.P.	Akzioduna
Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia	Akzioduna
UPV/EHU	Akzioduna

3.1.2. Lotutako erakundeekin izandako saldoak:

Hauek dira 2023ko eta 2022ko ekitaldien itxieran lotutako erakundeekin izandako saldoak (eurotan):



2023ko ekitaldia

	Taldeko enpresak / Empresas del grupo			Erakunde lotuak / Empresas vinculadas
	Epe laburreko kredituak	Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartuak	Epe luzeko zorrak	Epe laburreko zorrak
SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia	-	14.387	-	-
Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia				3.000.000
Parque Científico y Tecnológico de Guipúzcoa - Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, S.A.	-	-	-	-
Finantzen Euskal Institutua - Instituto Vasco de Finanzas	-	-	1.036.094	-
Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco	22.660.319	-	-	-
Guztira	22.660.319	14.387	1.036.094	3.000.000

2022ko ekitaldia

	Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak	Epe laburreko kredituak	Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartuak	Epe luzeko zorrak	Epe laburreko zorrak
SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia	-	-	60	-	3.500.000
Parque Científico y Tecnológico de Guipúzcoa - Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, S.A.	138.821	-	-	-	-
Finantzen Euskal Institutua - Instituto Vasco de Finanzas	-	-	-	1.710.629	-
Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco	-	22.339.063	-	-	-
Guztira	138.821	22.339.063	60	1.710.629	3.500.000

2014ko eta 2013ko ekitaldietan, Finantzen Euskal Institutuak 73.000 euro eta 6.282.500 euro, hurrenez hurren, eman zizkion Sozietateari epealdi bakoitzean onetsitako gastu hautagarriak finantza zitzaizkion, Euskal Autonomia Erkidegoan inbertsio zientifiko-teknologikoak egiteko proiektuak garatzeko. Maileguaren bizitza osorako ezarritako interes-tasa % 1,232koa da. Maileguak amortizatzeko epea 10 urtekoa da, kuota konstanteak ordainduz. 3.105.000 euroko, 1.425.000 euroko eta 1.752.500 euroko 3 kontratu indibidualek osatzen dute mailegua, eta horietako bakoitzak gabealdi eta



amortizazio-hasiera espezifikokoak ditu.

2023ko ekitaldian, Sozietateak erregistratu egin du Finantzen Euskal Institutuak emandako maileguaren bidez sortutako interesei dagokien gastu finantzarioa: 21.075 euro (29.284 euro, 2022ko ekitaldian).

Bestalde, erantsita doan balantzeko "Inbertsioak taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan epe laburrean" deritzon epigrafeak, aktibo korronteari buruzkoak, jasotzen du saldoa zorduna zela ekitaldia ixterakoan, Sozietatea 2021eko ekitaldian Eusko Jaurlaritzak eta banku-erakunde batek funtsak zentralizatzeko sinatutako kontratuari atxiki izanaren ondorioz; horren bitartez, Sozietatea Eusko Jaurlaritzaren Diruzaintza Korporatiboaren kudeaketa-ereduaren eta haren "Cash Pooling" ereduaren barruan sartzen da.

2022ko abenduaren 30ean, mailegu-kontratu bat formalizatu zuen Sozietateak "Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia (SPRI)" sozietatearekin, 3,5 milioi euroko zenbatekoarekin. Mailegu hori 2024ko abenduaren 31 baino lehen itzuli beharko da, eta 90 egunerako gehi oinarritzko 85 puntuko Euriborren interes-tipoa du. 2023ko ekitaldian, Sozietateak mailegu horregatik sortutako interesei dagozkien 30.288 euroko finantza-gastua erregistratu du.

3.1.3. Lotutako erakundeekin egindako transakzioak:

2023 eta 2022ko jardunaldietan zehar SPRIren ustiapen-dirulaguntzak jaso zituen: Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren (SPRI) aldetik, 456.259 eta 460.000 euroan, hurrenez hurren, eta beste dirulaguntza bat Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik; 100.000 eurokoak dira horien zenbatekoak ekitaldi bietan.

. Horien helburua "BIC BIZKAIA proiektua" finantzatzea da.

Bizkaiko Foru Aldundiarekin duen saldoak -3.000.000 euroko zenbatekoduna-etorkizuneko kapital-gehikuntzako kontzeptu gisa jasotako ekarpena jasotzen du; gehikuntza hori Batzar Orokorrak 2024ko ekitaldian onetsiko duela espero da.

Loturadun erakundeekin 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan egindako transakzioak honako hauek dira:

2023ko ekitaldia

	Higiezin eransketa / Adiciones de inmovilizado	Finantza-gastuak / Gastos financieros	Emandako zerbi tzuak / Servicios prestados	Diru-laguntzengatiko sarrerak / Ingresos por subvenciones
Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia	-	-	-	100.000
Azpiegiturak S.A.M.P.	455.277	-	11.638	-
Finantzen Euskal Institutua - Instituto Vasco de Finanzas	-	21.075	-	-
Parque Tecnológico de Álava- Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.	-	-	27.640	0



Parque Científico y Tecnológico de Guipúzcoa – Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, S.A.	-	0	159.684	-
SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia	-	30.288	260	456.259
Guztira	455.277	51.363	199.222	556.259

2022ko ekitaldia

	Euroak			
	Ibilgetu gehikuntzak	Finantza-gastuak	Emandako zerbitzuak	Diru-laguntzegtiko sarrerak
Bizkaiko Foru Aldundia	-	-	-	100.000
Azpiegiturak S.A.M.P.	2.186.565	-	10.730	-
Finantzen Euskal Institutua - Instituto Vasco de Finanzas	-	29.284	-	-
Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologia Elkartegia, S.A.	-	-	23.611	-
Parque Científico y Tecnológico de Guipúzcoa – Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, S.A.	-	-	149.894	-
SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia	-	-	260	460.000
Guztira	2.186.565	29.284	184.495	560.000

Sozietatearen ohiko trafiko-eragiketei dagozkien lotutako aldeekin egindako transakzioak eta lotu gabeko erakundeei aplikatzen zaizkien antzekoak diren merkatu-prezioen arabera egiten dira.

3.2.- Administrariak eta Goi Zuzendaritza.

2023 eta 2022ko ekitaldietan, Administrazio Kontseiluko kideek ez dute inolako ordainsaririk jaso karguan aritzeagatik. Sozietateko enplegatu legez eta Goi-zuzendaritzako lanak egiteagatik, Zuzendaritza Nagusiak 100.978 euroko ordainsariak eman ditu (98.665 euro 2022an). Zenbateko horrek gauzako ordainsariak (497 euro) jasotzen ditu, aseguru-primei dagozkienak.

2023 eta 2022ko abenduaren 31n, Sozietateak ez du obligaziorik Administrazio Kontseiluko lehengo edo egungo kideen pentsioei eta bizi-aseguruei dagokienez, ezta horien kontura, berme gisa, bereganatutako eskubiderik ere. 2023 eta 2022 jardunaldietan zehar, 4.817 eta 1.847 euroko primak ordaindu dira hurrenez hurren, Administrazioaileentzat kontratatutako Erantzukizun Zibileko aseguruaren truke.

2023 eta 2022ko ekitaldietan, ez da gertatu merkataritza-sozietate baten eta bertako edozein bazkideren edo administraziozaileraren edo haien kontura diharduen edozein pertsonaren arteko edozein kontraturen amaierarik, aldaketarik edo azkentzerik, sozietatearen ohiko trafikotik kanpoko eragiketa denik edo ohiko baldintzetan egiten ez denik.

4. ARRISKUEN KONTROLA

4.1. Sozietatearen jarduerak hainbat finantza-arrisku dute: merkatu-arriskua (kanbio-tasaren arriskua; interes-arriskua arrazoizko balioan; eta prezioen arriskua barne), kreditu-arriskua, likidezia-arriskua eta interes-tasaren arriskua diru-fluxuetan. Sozietateak arrisku orokorra kudeatzeko duen programak finantza-merkatuen ziurgabetasunari erreparatzen dio batez ere, eta egoera horrek Sozietatearen finantza-errentagarritasunean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak minimizatzen saiatzen da.

Finantza Zuzendaritza arduratzen da, batik bat, Sozietatearen finantza-arriskuak kudeatzeaz, eta organo horrek interes-tasetan eta kanbio-tasetan gerta daitezkeen aldaketen zein kreditu- eta likidezia-arriskuen aurrean duen esposizioa kontrolatzeko beharrezko mekanismoak ditu ezarrita. Jarraian, Sozietatean inpaktua duten finantza-arrisku nagusiak adierazten dira:

Merkatu-arriskua

Finantza-tresna baten etorkizuneko arrazoizko balioa edo diru-fluxuak aldatzeko arrisku gisa definitzen da; aldaketa horiek gerta daitezke interes-tasetan (interes-tasaren arriskua) eta kanbio-tasetan gertatutako aldaketen edo prezioarekin eta eskaintzarekin lotutako beste arrisku batzuen ondorioz.

Prezio-arriskua

Sozietateak ez du kotizatutako lehengaiaren prezio-arriskurik. Halaber, ez du kotizaziodun inbertsiorik ere.

Interes-tasaren arriskua arrazoizko balioan

Ez da esanguratsua Sozietateak arrazoiko balioan duen interes-tasari dagokion arriskua, ez baitu interes-tasa finkoko finantza-aktibo eta -pasibo garrantzitsurik

Kanbio-tasaren arriskua

Ez dago kanbio-tasarekin lotutako arrisku esanguratsurik, eragiketa ia denak egiten baitira eurotan.

Likidezia-arriskua

Sozietateak finantza-tresna batean behar besteko azkartasunez desinbertitzeko aurki ditzakeen arriskuak dira, horretarako kostu gehigarri esanguratsurik izan gabe, edo ordaintzeko betebeharrei aurre egin behar zaienean likideziarik ez izatearen horrekin lotutako arriskua.

Sozietateak zuhurtziaz kudeatzen du likidezia-arriskua, behar adina eskudiru edukitzean oinarrituta. Maniobra-funts positiboa du, eta zorpetzeko gaitasun gehigarria.

Finantza Zuzendaritzak Sozietateak duen likidezia-erreserbaren aurreikuspenen jarraipena egiten du; hor barruan sartzen dira erabilgarri dagoen eskudirua eta eskudiruaren balioakideak (13. Oharra), espero diren diru-fluxuen arabera.

Likidezia ziurtatzeko eta jardueratik eratortzen diren ordainketa-konpromiso guztiei aurre egin ahal izateko, 11. Oharrean xehatzen den diruzaintza, 17. Oharrean xehatzen den *cash*

pooling eta 14. Oharrean xehatzen diren finantzazio-ildoak ditu Sozietateak, bai eta balantzean erakusten den maniobra-funtsa ere.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Urteko Aurrekontuetan finkatzen da Sozietateak bere jardura garatzeko behar dituen finantza-baliabideak eskuratzen ahalmena. Euskadiko Administrazioaren eta autonomia erkidegoan jarduten duten Finantza-erakundeen artean orokorrean urtero sinatzen den Hitzarmenaren bitartez arautzen dira finantza-baliabide aktibo zein pasiboetako dagozkien baldintzak. Kasuan kasu aplikatu beharreko eta Euriborraren arabera ezarritako interes-tasak, komisioak, etab. finkatzen ditu aipatu hitzarmenak.

Kreditu-arriskua

Taldeko enpresei ematen zaizkien kredituak, diru-saldoak eta kobratzeko beste kontu batzuk dira Sozietatearen finantza-aktibo nagusiak, Sozietatearen kreditu-arriskuaren aurreko gahieneko esposizioa ordezkatzen dutenak.

Sozietateak, aldeztatik, lokalak errendatzeko edo lurzatiak saltzeko eskaerak banan banan aztertu ditu. Bestalde, zatika ordaintzen bada, jabetzaren eskualdaketa formalizatzen den unean higiezinak jabaria erreserbatzeko itunarekin formalizatuta daude, hitzartutako zenbateko guztiak garbitzen diren bitartean. Hori dela eta, ez da arrazoi hori duen arrisku nabarmenik frogatu.

Narriaduragatik egindako balio-zuzenketa balantze garbian islatzen dira zenbatekoak, Sozietateko Zuzendaritzak aurreko urteetako esperientziaren eta zordun bakoitzaren inguruabar zehatzen arabera kalkulatu dituenak.

2023ko eta 2022ko abenduaren 31n, haren kontu komertzialen **482.756** euroko eta 482.756 euroko narriaduragatik galeren kobratu beharreko zuzenketa zuten erata (9.3 Oharra), Sozietateak data horretan berandutze-aktiboetako edo narriatutako aktiboetako aurreko esposizioa osatzen dutenak.

Bestalde, egokitzat kalifikatzen den kaudimen-mailarekin mantentzen dira diru-saldoak finantza-erakundeetan.

4.2.- 2023an, Arrisku Penalen Eskuliburuan jasotzen diren monitorizazioa eta kontrolak egin ziren. Salaketa bat ere jaso zen, D2023-1 PCTB espediente-zenbakiarekin. Dagozkion egintzak gauzatu eta, 2023ko abenduaren 14an Administrazio Kontseiluari horien berri eman ondoren, betetze-batzordeak egokitzat jo zuen espediente hori artxibatzea.

4.3.- Administrazio Kontseiluko abokatu aholkulari bat izendatu da, Kontseiluan lortutako akordio baliagarriak bermatzeko mekanismo gisa.

4.4.- Administrazio Kontseiluko kide guztientzat erantzukizun zibileko estaldura duen aseguru-poliza dago, enpresaren kargura eta kontura, Kontseiluko kideen erantzukizun-erregimenaren aplikazioa dela-eta sor daitezkeen gatazken aurrean lege-estaldura izateko.

5. BATZAR NAGUSIA

5.1.- Batzar Nagusia eratzeko quorumari dagokionez, ez dago desberdintasunik Kapital Sozietateei buruzko Legean aurreikusitako gutxieneko erregimenarekin.

5.2.- Akordio sozialei dagokienez, ez dago desberdintasunik Kapital Sozietateei buruzko Legean aurreikusitako erregimenarekin.



5.3.- Batzar Nagusiak izaera unibertsalarekin egin ohi dira.

Pertsona berak du Batzar Orokorreko Presidentziako kargua eta Administrazio Kontseiluko Presidentziakoa.

5.5.- Sozietateak ez du egin Batzar Nagusiko Estatuturik.

5.6.- Ekitaldian egin diren Batzar Orokor guztietan lortu da % 100eko bertaratzea.

5.7.- Txosten honi dagokion ekitaldian egindako Batzar Nagusietako akordio guztiak aho batez hartu dira. Hauek dira:

Ohiko eta Ez-ohiko Batzar Orokorra, 2023ko ekainaren 15ean egindakoa

1. *Sozietatearen urteko kontuak (egoera-balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera, diru-fluxuen egoera eta memoria), kudeaketa-txostena eta Sozietatearen emaitza aplikatzeko proposamena aztertzea eta onestea, hala badagokio. Hori guztia 2022ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiari dagokionez.*
2. *2022ko ekitaldiko emaitza aplikatzeko proposamena aztertzea eta, hala badagokio, onestea.*
3. *Administrazio-organoak 2022ko ekitaldian egindako kudeaketa aztertzea eta, hala badagokio, onestea.*
4. *Kontseilariak kargugabetzea eta izendatzea.*
5. *Kapitalaren 3.500.000 euroko Gehikuntza eta sozietatearen estatutuen 2. artikulua aldaketa aztertzea eta, hala badagokio, onestea; Gobernu Kontseiluaren aurreiazko baimena behar da gehikuntza egiteko.*
6. *Hartutako akordioak jendaurrean jartzeko eskumena.*
7. *Batzarraren akta irakurtzea eta onestea, hala badagokio.*

Ez-ohiko Batzar Orokorra, 2023ko urriaren 5ean egindakoa

1. *Kontseilariak kargugabetzea eta izendatzea.*
2. *Kapital-zabalkuntza.*
3. *Hartutako akordioak jendaurrean jartzeko eskumena.*
4. *Saio honetako akta irakurtzea eta, hala badagokio, onestea.*

5.8.- Estatutuetan ez dago mugarik Batzar Nagusira joateko beharrezkoa den gutxieneko akzio-kopuruari buruz.

AZKEN OHARRA:

Administrazio Kontseiluaren Estatutuaren edukia ikusteko, webgune honetara jo daiteke zuzenean: www.parke.eus